

**LUCART PAPER-LANTEGIRA BISITALDIA
VISITA PLANTA DE PAPEL LUCART**

2021-07-21 Artziniega 21-07-2021

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua, LUCART enpresaren arduradun guztiok eta kideok, jaun andreok, egun on eta eskerrik asko zuen gonbidapenagatik.

Duela hiru urte, LUCART taldeak Artziniegako eta Arangurengo papera ekoizteko zentroak erosi zituen; baita Gueñesko biltegia ere. Une hartan, Eskualde honetan lehen mailako industria-jarduerari jarraipena emateko aukera eskaini zenuten.

Suspertze prozesuan pandemia iritsi zen eta zuen erantzuna jarduerari eustea izan zen. Ez hori bakarrik, gaur aurkezten duzuen inbertsio hau aurrerapauso berri bat da. Aurrerapausoa ekoizpenaren eta enpleguaren alde. Gaur, 224 langilek egiten dute lan enpresa honetan.

Hace tres años, LUCART apostó por estos Centros de producción. Adquirió al grupo CEL las plantas productivas en Euskadi, cuando se encontraba en un proceso concursal que abocaba al cierre y la pérdida de 145 empleos directos.

En marzo del pasado año llegó la pandemia y LUCART aplicó el protocolo de actividad industrial. Tuvo que reorganizar y reorientar su producción. Esa actitud de respuesta constructiva y de responsabilidad corporativa contribuyó al mantenimiento de la actividad y el empleo.

Es un ejemplo. Tras 16 meses de lucha contra la pandemia, seguimos necesitando arrimar el hombro para superar esta situación. Hay luz al final del “túnel pandémico”.

Hoy reconocemos la actitud positiva que representa esta nueva inversión. Una apuesta por la capacidad industrial, la internacionalización y el empleo en esta Comarca. De hecho, hoy 224 personas trabajan en esta empresa. Se ha creado empleo y se ha conseguido la resurrección de la antigua papelera, con un proyecto de futuro.

El grupo LUCART ha invertido más de 20 millones de euros para mejorar las instalaciones y desarrollar nuevas líneas de producción. LUCART es, además, un referente en el modelo de producción sostenible y responsable.

La fabricación de papel optimiza el uso de las materias primas y reduce el desperdicio, transformándolo en nuevos recursos. La empresa aplica modelos de producción inspirados en la economía circular para proteger a las personas y contribuir al futuro del planeta. Gracias a este compromiso, en los últimos 8 años el grupo ha conseguido reducir en 170.000 toneladas la emisión de CO2 a la atmósfera, relacionadas con el proyecto de reciclado de envases tetra pack.

La suma de inversión, tecnología, digitalización y sostenibilidad ambiental mejoran la competitividad de la empresa. Estos son, precisamente, los ejes que van a marcar la industria competitiva del siglo XXI. Los ejes que van a contribuir a un modelo de desarrollo económico inclusivo y sostenible en línea con el compromiso “Basque Green Deal” que hemos adquirido.

Lehen fase honetan, 20 milioi euro baino gehiago inbertitu dituzue instalazioak hobetzeko eta ekoizpen-lerro berriak garatzeko. Etorkizun digitalaren alde egin duzue. Horrekin batera, LUCART erreferentea da ekoizpen jasangarriaren eta arduratsuaren ereduan.

Ekonomia zirkularrean oinarritutako ekoizpen-ereduak aplikatzen dituzue. Inbertsioa, digitalizazioa eta iraunkortasuna uztartuz enpresaren lehiakortasuna hobetzen duzue. Hori bermea da industria-jarduera eta enplegua berreskuratzen ari den Eskualde honentzako.

Bide honetan, Eusko Jaurlaritzak eta erakunde publikoak Enkarterrirako Plan berezi bat onartu dugu, nahiz eta Artziniega Aiara aldean dagoen, baina uste dut Arangurenekin batera, Enkarterrietako ere planteatu daitekeela, baita Aiara aldearekin. Gure helburua da ditugun abantailak berreskuratzea, hau da: gaitasun industrial, posizio logistikoa eta giza baliabideak.

Lankidetzak publiko-pribatuko eredu batekin, jarduera eta enplegua berreskuratzea lortuko dugu. Helburu horren alde lan egiten jarraitzea merezi du.

El Gobierno Vasco ha aprobado el Plan de Zonas de Actuación Preferente. Este Plan compromete una inversión de 180 millones de euros para el relanzamiento de las Comarcas más desfavorecidas.

Las instituciones públicas estamos trabajando en la misma dirección. Aplicamos un modelo de colaboración público privado y la estrategia con LUCART es un

ejemplo. Trabajando juntos, vamos a lograr la recuperación de la actividad industrial y del empleo. Este es el bien común que perseguimos para esta Comarca y para toda Euskadi.

Amaitzeko.

Duela hiru urte hasi zen hemen LUCART taldearen ibilbidea. Bizi dugun "pandemia garai" honetan, bereziki eskertzen dugu ekintzekin erakusten duzuen jarrera, industria ekoizpenaren eta enpleguaren alde.

Irekiera egun berezi honetan, zorionak LUCART eta eskerrik asko!